Urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuan eta otsailaren 28ko 173/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

271/1983 Dekretuaren 3. atalean jasotzen den gaitzearekin bat, hau

ERABAKI DUT:

*Atal bakarra.*– Zuya Udalerriaren gaurregungo izena aldatu eta aurrerantzean Zuia izen ofizialez izendatzeko baimena ematea.

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.*– Hilabeteko epe barruan eta Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak jartzen duenaren arabera, Ogasun eta Finantza sailburuordeari ohiko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabaki honen aurka.

Vitoria-Gasteiz, 1995eko irailak 29.

Erakunde Harremanetako
eta Toki Administrazioko zuzendaria,
JOSÉ M.ª ENDEMAÑO ARÓSTEGUI.

De conformidad a lo dispuesto en el Decreto 1/1995, de 3 de enero, así como en el Decreto 173/1995, de 28 de febrero.

De acuerdo a la habilitación contenida en el artículo 3 del Decreto 271/1983,

RESUELVO:

*Artículo único.*– Aprobar el cambio de denominación del Municipio de Zuya por el de Zuia.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.*– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso ordinario ante el Viceconsejero de Hacienda y Finanzas en el plazo de un mes, en los términos que establece la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de septiembre de 1995.

El Director de Relaciones Institucionales
y Administración Local,
JOSÉ M.ª ENDEMAÑO ARÓSTEGUI.

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 4162

416/1995 DEKRETUA, irailaren 29koa, Leitzaran ibaia babestutako biotopo deklaratzen duena.

Gipuzkoa aldeko Leitzaran ibaiaren harana estua, malda handikoa eta betidanik populazio gutxikoa izan da. Egun, baserrietan jende gutxi bizi da haranaren barru aldean. Gertaera honek badauka eraginik ingurunean, batez ere uraren kalitatean bai errekaren bide nagusira erreka-bideetatik jeisten diren hainbat erreten eta errekako uraren kalitatean bai Leizaran ibaiko urarenean. Gipuzkoa aldeko ibaiaren ibilbidean ez da ez hondakin kutsakorrik ez jarduera kutsakorrik; ondorioz, ibai hau Gipuzkoan gutxien kutsatuta dagoen eta kalitate oneneko urak daramatzana da.

Leizaran ibaiko uren kalitatea ibaian bertan dagoen arrain-bizitzan isladatzen da (amuarraina, aingira, ezkailua, boga, e.a.). Gainera zenbait ibaiadarren urak Andoaingo udalerria edateko urez hornitzeko erabiltzen dira.

Baina ibaiaren garrantzia ez dago bakarrik uren kalitatean, badira berezko interesa daukaten beste alde batzuk. Adibidez, bihurgunez beteriko bidea, zeinek balio geomorfologiko handia daukan, eta Gipuzkoako

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### 4162

DECRETO 416/1995, de 29 de septiembre, por el que se declara el Biotopo Protegido Río Leizaran.

El valle del río Leizaran en su tramo guipuzcoano es un valle angosto, con fuertes pendientes, cuya densidad de población ha sido siempre escasa. En la actualidad, son pocos los caseríos habitados en el interior del valle, hecho que tiene sus consecuencias en el medio y, concretamente, en la calidad del agua, tanto de los numerosos arroyos y regatas que descienden por las vaguadas hasta el curso principal como del mismo río Leizaran. Así, la ausencia de vertidos y actividades contaminantes en su tramo guipuzcoano hace que sea uno de los menos contaminados y de aguas de mejor calidad de Gipuzkoa.

La calidad de las aguas del río Leizaran queda reflejada en la riqueza de vida piscícola que en él se encuentra (trucha, anguila, piscardo, madrilla, etc). Además, las aguas de algunos de sus afluentes se utilizan para el abastecimiento de agua potable del municipio de Andoain.

Sin embargo el interés del río no se reduce a la calidad de sus aguas, sino que además existen otras zonas de importancia natural: su curso meandriforme, con un notable valor geomorfológico, y la presencia del mejor

altzadi oligotrofo onena, bai daukan egituragatik, bai bere hedaduragatik.

Alde honetan inguruneak daukan beste ezaugarri bat populazioaren eskasiarekin lotuta dagoena da, segabelardi eta larre eskasia, Gipuzkoako baserrialdeetan hain ugariak direnak. Baserrialde hauetan ustiatzeko modu aintzinakoena behi-aziendan oinarritutakoa da. Aipatzekoa da ikergai dugun aldearen zuhaitz azaleraren kopurua (%90a baino handiagoa) Gipuzkoako beste ibai-sakanetakoa baino askoz ere haundiagoa. Honek erakusten du baso erabileraren garrantzia.

Azalera honetan konifera-landaketak dira ugarienak, nagusiki intsinis pinua, eta 600 metrotik gora larizio pinua eta alertzeak. Baso autoktonoa gordetzen den aldean harizti hibridoak daude, haran honetako ezaugarri direnak eta Gipuzkoako beste alde batzuetan oso gutxi ematen direnak.

Landaretzari dagokionean, aipatzekoa da Gipuzkoako esfagnodi zabalena, hala nola goroldio espezie ezberdinak eta espezie hepatikoak ere, Euskal Autonomi Elkartean eta Penintsulan ere oso gutxi ikusten direnak. Hauek haritzez estalitako haitz mugertsuetan egoten dira. Honen adibide Ibarrolako hariztia dugu, basoaren egoera ona eta kontserbazioa erakusten duena.

Babestutako aldean kontserbaziorako balio haundiko fauna-espezie ugari dago; horregatik bere kontserbazioa bermatzen duten kudeaketa neurri zehatzak ezarri behar dira. Hala ere, espezie hauek ez dira era uniforme batean banatzen zonalde osoan; izan ere, balio handiena duten espezieak altzadian kokaturik daude.

Habitatari buruzko Arteztarauaren II. Eraskinean Leitzaran haraneko bi espezie aipatu dira; hortaz, gune bereziak izendatu beharko dira kontserba daitezen. Uhandre piriniarrak (Euproctus asper) eta muturluze piriniarrak (Galemys pyrenaicus) populazio segurua mantentzen dute haranean. Euskal Autonomi Elkartean Europroctus asperra dagoen herri bakarra Leitzaran da, horregatik bere kontserbazioa bermatzen duen figura sortu behar da eta horrela Habitatari buruzko Zuzentaraua bete.

Halaber, aipatzekoa da alde horretan dagoen aberastasun kulturala. Haranaren barru aldean: lehengo Plazaolako trenbide zaharra, burniolak eta inguruko beste eraikuntzak; baita sakanaren bihotzean ere : historiaurreko aztarnategi arkeologikoak.

Alde honen beste bereizgarri bat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan ez dena lurraren jabegoarena da. Gipuzkoan jabego pribatua publikoaren gainetik dagoen bitartean, Leitzaran ibaiaren sakanean, Andoain, Billabona, Berastegi eta Elduaiengo herri onurako mendiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak duela gutxi erositako lurrak babestutako biotopoaren azaleraren %77a osatzen dute.

Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko

ejemplo de aliseda oligotrofa de Gipuzkoa, tanto por su estructura como por su extensión.

Otra característica del medio en este área, relacionada con la poca densidad de población, es la escasez de los prados de siega y pastos para el ganado, tan frecuentes en las zonas rurales de Gipuzkoa, donde el sistema de explotación tradicional ligado al caserío tiene como componente fundamental el ganado vacuno. Destaca el enorme porcentaje de superficie arbolada del área de estudio (que sobrepasa el 90%) muy superior al de otras cuencas de ríos guipuzcoanos. Esto indica la preponderancia del uso forestal.

La inmensa mayoría de esta superficie corresponde a plantaciones de coníferas, principalmente pino radiata y, en altitudes superiores a 600 m., pino laricio y alerces. Entre las zonas en las que se conserva el bosque autóctono se encuentran bosques de robles híbridos, típicos de este valle y que raramente se dan en otros lugares de Gipuzkoa.

También en el aspecto botánico, destaca la presencia del esfagnal más extenso de Gipuzkoa, así como diversas especies de musgos y hepáticas raras en la Comunidad Autónoma del País Vasco e incluso en la Península, cuyo hábitat son los roquedos silíceos cubiertos por robledales. Este es el caso del robledal de Ibarrola, lo que denota la gran calidad y el buen estado de conservación de este bosque.

Existe en el área protegida un elevado número de especies faunísticas que poseen un gran valor para la conservación, lo cual hace necesario el establecimiento de medidas específicas de gestión que garanticen su conservación. No obstante estas especies no se distribuyen de forma uniforme por toda la zona; así, las especies de mayor valor se encuentran localizadas en la aliseda.

Dos especies que se han citado en el valle de Leizaran se incluyen en el Anexo II de la Directiva de Hábitats, debiendo por tanto señalarse zonas especiales para su conservación. Tritón pirenaico (Euproctus asper) y Desmán del Pirineo (Galemys pyrenaicus), mantienen poblaciones seguras en el valle. Al ser Leizaran la única localidad conocida de Euproctus asper en la Comunidad Autónoma del País Vasco, se hace necesario crear una figura de protección que garantice su conservación, cumpliendo de este modo la Directiva de Hábitats.

La riqueza cultural del área es asimismo remarcable, centrándose los elementos más destacables, bien en el fondo del valle: ferrocarril abandonado de Plazaola, ferrerías y estructuras anexas; bien en las alturas de los cordales que cierran la cuenca: yacimientos arqueológicos prehistóricos.

Otro aspecto relevante de esta zona y que la distingue del resto del Territorio Histórico de Gipuzkoa es la propiedad de los terrenos. Así, mientras que en el resto de Gipuzkoa la propiedad privada predomina sobre la pública, en la cuenca del río Leizaran los Montes de Utilidad Pública pertenecientes a los municipios de Andoain, Villabona, Berastegi y Elduain, y los terrenos recientemente adquiridos por la Diputación Foral de Gipuzkoa, representan el 77% de la superficie del biotopo protegido.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 19

16/1994 Legearen 19. atalean aurrikusitakoa betetzeko, dekretu honek beharrezko tramiteak bete ditu, hau da, interesatuei entzun zaie eta ukituriko gizarte-interesen zein erakundezkoen titularrei kontsulta egin zaie.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko irailaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.–* Xedea.

Dekretu honen xedea Leitzaran ibaia babesteko araubide juridiko berezia ezartzea da, inguru hori babestutako biotopo deklaratuaz, Euskal Herriko natura babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 15. atalean ezarritakoaren arabera.

*2. atala.–* Lurralde-eremua.

1.– Leitzaran ibaiko biotopo babestuak ubide naturala eta zortasun-lurrerrenkak hartzen ditu bere baitan, hau da, ubidea eta 5 metro zabalerako lurrerrenka bana alde bietan. Lurrerrenka, abuztuaren 2ko 29/1985 Uren Legean ezarritakoaren arabera, honakoa izango da:

a) Leitzaran ibaia Nafarroako mugatik, hau da Plazaola uhartetik, Otitako arrain-haztegiko uharkaraino, hala nola bi puntu hauen arteko ibaiadarrak, eta

b) Maloko eta Ubaran ibaiadarrak lehengo trenbidearen gurutzebideraino.

2.– Leitzaran ibaiko babestutako biotopoa erantsitako kartografian zehazten da.

*3. atala.–* Babestutako biotopoari buruzko arauak.

1.– Baimendutako erabilerak.

a) Biotopoaren balio bereziekin zerikusia duten zientzi eta zabalkunde jarduerak.

b) Ibilaldiak eta txangoak, motoredun ibilgailurik erabiltzen ez bada.

c) Egun herri jabari hidraulikoarekin zerikusia duten instalazio eta hornikuntzak. Ur emariak uretan bizitza gerta dadin gutxienezko urketa errespetatuko du.

d) Motoredun ibilgailuekin zirkulatzea, beti ere, nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ihardueretarako, kudeaketa-beharrizanetarako edo instalazioak mantentzeko bada eta egun dauden bideak erabiltzen badira.

e) Egun ematen diren nekazaritza eta abeltzaintza erabilerak.

2.– Baimen daitezkeen erabilerak.

Babestutako biotopoaren kudeaketarako organoak honakoak baimendu ahal izango ditu:

a) Uren zirkulazio askea errazteko basoetako jarduerak: ubidera eroritako zuhaitzak eta adarrak jasotzea, egoera txarrean edo gaisorik dauden aleak kentzea eta ihartutako adarrak kimatzea.

de la Ley 16/1994 de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco el presente Decreto ha sido sometido a los trámites de audiencia a los interesados y de consulta a los titulares de intereses sociales e institucionales afectados.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 29 de septiembre de 1995.

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto

Es objeto del presente Decreto establecer un régimen jurídico especial de protección para el Río Leizaran mediante su declaración como Biotopo Protegido, de acuerdo con lo establecido en el artículo 15 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

*Artículo 2.–* Ámbito territorial.

1.– El Biotopo Protegido Río Leizaran comprenderá el cauce natural y la franja de servidumbre de 5 metros de anchura a ambos lados, definidos según la Ley 29/1985, de 2 de agosto, de Aguas, de:

a) el río Leizaran desde el límite con Navarra, en la presa de Plazaola, hasta la presa de la piscifactoría de Otita, así como los afluentes comprendidos entre estos dos puntos, y

b) los afluentes Maloko y Ubaran, hasta su cruce con el ferrocarril abandonado.

2.– El Biotopo Protegido Río Leizaran se representa en la cartografía adjunta.

*Artículo 3.–* Normativa del Biotopo Protegido

1.– Usos permitidos.

a) Actividades científicas y de divulgación relacionadas con sus valores específicos.

b) Paseos y excursiones siempre que no impliquen el uso de vehículos motorizados.

c) Instalaciones y equipamientos actualmente existentes vinculados al dominio público hidraúlico. Las concesiones de agua respetarán el caudal mínimo necesario para la vida acuática.

d) La circulación con vehículos a motor para usos agrícolas, ganaderos y forestales, necesidades de gestión y uso y mantenimiento de las instalaciones por los caminos existentes.

e) los usos agrícolas y ganaderos actualmente existentes.

2.– Usos autorizables

El Organo Gestor del Biotopo Protegido podrá autorizar los siguientes usos:

a) Las actividades sobre la masa forestal destinada a facilitar la libre circulación de las aguas: retirada de árboles o ramas caídas al cauce, eliminación de ejemplares enfermos o en mal estado, poda de ramas muertas.

b) Arrantza.

c) Laginak hartzea, zientzi edo hezkuntza helburuekin.

d) Hariteria elektrikoa eta komunikazioetarakoa.

e) Dauden pistetan motoredun ibilgailuak ibiltzea.

f) Uretako jolas-jarduerak.

g) Dauden instalazioen zerbitzurako azpiegiturak mantentzea eta berriak jartzea.

h) Euskal Herriko natura babesteko 16/1994 Legean aurrikusitakoaren arabera, autoktonoak diren flora eta fauna espezieak sartzea.

3.– Debekatutako erabilerak.

a) Ubideetan edo urbazterretan aldaketak dakartzaten ekintzak, salbu herri jabari hidraulikoarekin zerikusia duten instalazio eta hornikuntzak mantendu eta berriak jartzekoak.

b) Landaretzaren osagaiak edo egitura aldatzea, salbu atal honetako 2 a) puntuan araututakoa.

c) Autoktonoak ez diren flora eta fauna espezieak sartzea.

d) Basa fauna persegitzea, ehizatzea edo harrapatzea, arrantza salbu, beti ere baimentzen den baldintzetan.

e) Lurrazpiko urak degrada edo kutsa ditzaketen solido edo likidoen isurketak, indarrean dauden arauekin bat etorriz.

f) Eraikuntza jarduerak.

g) Honako idazati honetan zehazturik egon ez arren, babestutako biotopo honen natur ingurunearen elementuen artapena arriskuan jar dezaketen erabilera eta jarduera guztiak. Guzti hori zehazteko, babestutako biotopoaren kudeaketarako organoak halako erabilera edo jarduerari buruzko txostena eman beharko du.

*4. atala.*– Inguruko babesaldea.

16/1994 Legearen 17.1 atalean ezarritakoaren arabera eta Dekretu honen eraskinean argitara ematen den oinarri kartografikoarekin bat etorriz, inguruko babesaldetzat hartuko da Leitzaran ibaira isurtzen diren uren berezko arroa.

*5. atala.*– Inguruko babesaldearen arautegia.

1.– Babestutako Biotopoaren Kudeaketarako Organuak ehiza aprobetxamenduen plangintza egingo du, hala nola etzauntzak jartzea eta bide mekanikoak erabiltzen dituzten jolasen jarduerena ere.

2.– Baimen daitezkeen erabilerak.

Babestutako Biotopoaren Kudeaketarako Organuak honako erabilerak baimendu ahal izango ditu:

a) Lurraldeari ematen zaion erabilera aldatzea. Bakarrik baimenduko dira hobekuntza ekologikoa edo sozioekonomikoa dakartenak, beti ere ez badute eraginik Babestutako Biotopoaren helburuetan.

b) Baso-soilketak eta produktu fitosanitarioen erabi-

b) La pesca.

c) La recogida de muestras con fines científicos o educativos.

d) Los tendidos eléctricos y de comunicaciones.

e) La circulación con vehículos a motor en las pistas existentes.

f) Las actividades recreativas acuáticas.

g) El mantenimiento y la sustitución de las infraestructuras de servicio para las instalaciones existentes.

h) La introducción de especies de flora y fauna autóctonas, según lo dispuesto en la Ley 16/1994, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

3.– Usos prohibidos.

a) Las acciones que impliquen alteraciones del cauce o riberas, salvo para el mantenimiento y sustitución de las instalaciones y equipamientos actualmente existentes , vinculados a la utilización del dominio público hidraúlico.

b) La alteración de la composición o estructura de la vegetación, salvo lo regulado en el punto 2 a) del presente artículo.

c) La introducción de especies de flora y fauna silvestre no autóctonas.

d) La persecución, caza o captura de la fauna silvestre, salvo la pesca en las condiciones en que se autorice.

e) Los vertidos sólidos o líquidos que puedan degradar o contaminar las aguas, según la normativa vigente.

f) Las actividades constructivas y edificatorias.

g) Todos los usos y actividades no especificados en el presente párrafo que pongan en la conservación de los elementos del medio natural de este Biotopo Protegido, lo que se determinará mediante un informe respecto al uso o actividad que deberá emitir el órgano gestor del Biotopo Protegido.

*Artículo 4.*– Zona periférica de protección.

Tendrá la consideración de Zona Períférica de Protección, a los efectos establecidos en el artículo 17.1 de la Ley 16/1994, la cuenca natural de aguas vertientes al río leizarán, de conformidad con lo establecido en la base cartográfica que se publica como anexo al presente Decreto.

*Artículo 5.*– Normativa de la Zona periférica de protección.

1.– El Organo Gestor del Biotopo Protegido planificará los aprovechamientos cinegéticos, así como la acampada y las actividades recreativas que utilicen medios mecánicos.

2.– Usos autorizables.

El Organo Gestor del Biotopo Protegido podrá autorizar los siguientes usos:

a) El cambio de uso actual del territorio. En general sólo se autorizarán los que supongan una mejora ecológica o socioeconómica, siempre que no afecte a los objetivos del Biotopo Protegido.

b) La realización de cortas a hecho y la utilización de

lera, ekintza horiek uraren zikloan daukaten eragina aztertuz, besteak beste, bai baliabidearen kantitateari dagokionean bai bere kalitateari dagokionean.

3.– Debekatutako erabilerak.

a) Eraikuntza erabilerak. Edonola ere, onartuko dira organo kudeatzailearen aurretiazko baimenarekin, nahitaez egin behar diren eraikuntzak, abeltzantza eta basogintza jarduerei lotuta badaude eta babestutako biotopoaren kudeaketari lotuta badaude, baita egun dauden eraikuntzak berritzeko jarduketak ere.

Baimena ekintza horrek sakanaren funtzionamedu hidrologikoan eta azaleko edota lurrazpiko uren kalitatean sortzen duen eraginaren arabera eman ala ukatuko da.

b) Debekatuta dago ubideetan eta lurrean, aldez aurretik araztu gabe, hondakin solidoak edota hondakin-urak zuzenean botatzea. Babestutako biotopoaren organo kudeatzaileak zehaztuko ditu dauden hondakinak modu egokienean arazteko epeak, indarrean dagoen legeriarekin eta legeria horretan hondakinak botatzea baimentzeko ezartzen diren izapideekin bat etorriz. Ez da baimenduko osagai kimiko, fisiko edo bakteriologikoengatik azaleko zein lurrazpiko urak kutsatu eta osasun publikorako, baliabideen aprobetxamendurako edota osasun ekologiko egokiaren mantenimendurako kalteak ekar dezakeen ezein isurketa, ez zuzenekoa, ez zeharkakoa.

*6. atala.*– Babestutako biotopoaren kudeaketa.

1.– Leitzaran ibaiko babestutako biotopoaren kudeaketa Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio.

2.– Kudaeketaren irizpide lagungarri izango dira babestutako biotopoaren artapena eta berriztapena, babestutako biotopoaren erabilera zuzenarekin bateragarriak izango direnak.

3.– Dekretu honetan aurrikusten diren baimenak emateko, erabilerak edo jarduerak natur ingurunean duen eragina ebaluatuko du organu kudeatzaileak. Horretarako, sustatzaileak ebaluazioari buruzko txostena erantsiko du instruitzen diren baimen-espediente guztietan.

*7. atala.*– Herri-onura.

Leitzaran ibaia babestutako naturgune deklaratzeak, inguru hori herri-onuratzat hartzea ekarriko du, ukituriko ondasun eta eskubideak desjabetzeari dagokionez.

*8. atala.*– Kalteordainak.

Dekretu honetan ezarritako murrizketak indarrean jartzeko xedeaz, jabetza pribaturik edo legebidezko ondare-eskubide zein ondare-interesik kentzen bada, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren araberako kalteordainak emango dira.

*9. atala.*– Eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubidea.

Babestutako biotopoaren barruko lurrekin inter vivos egiten diren eskualdaketa guztietan, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio, eskuduna den organoaren bidez, eroslehentasun eta atzera eskuratzeko eskubideen egikaritza.

productos fitosanitarios analizando, entre otros, los impactos de dichas actividades en el ciclo hidrológico tanto en la cantidad del recurso como en su calidad.

3.– Usos prohibidos.

a) Los usos constructivos. No obstante, se admiten, previa autorización del órgano gestor, las edificaciones imprescindibles ligadas a las actividades agropecuarias y forestales y de gestión del Biotopo Protegido, así como las acciones de restauración de las edificaciones y construcciones actualmente existentes.

La autorización vendrá determinada por la apreciación del impacto que dicha actuación genere en el funcionamiento hidrológico de la cuenca así como en la calidad de las aguas superficiales y/o subterráneas.

b) Quedan prohibidos todo tipo de vertido de residuos sólidos y/o de aguas residuales de forma directa a los cauces y al terreno sin previa depuración. El órgano gestor del Biotopo Protegido determinará a este respecto los plazos en los que se deberá proceder a la adecuada depuración de los vertidos actualmente existentes de acuerdo a lo establecido por la legislación vigente y a los trámites de autorización de vertido establecidos en la misma. No se autorizará ningún vertido directo ni indirecto cuya composición química, física o bacteriológica pueda contaminar las aguas superficiales o subterráneas con daños para la salud pública, para los aprovechamientos del recuros y/o para el mantenimiento de la adecuada salud ecológica.

*Artículo 6.*– Gestión del Biotopo Protegido.

1.– La gestión del Biotopo Protegido Río Leizaran corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2.– Serán criterios orientadores de la gestión, la conservación y restauración del Biotopo Protegido, compatible con la utilización ordenada del mismo.

3.– Para la emisión de las autorizaciones que se preven en este Decreto, el órgano gestor evaluará, en todo caso la incidencia que el uso o actividad en cuestión tenga en el medio natural, mediante la incorporación por el promotor, en el expediente que a tal efecto se instruya, de informe en tal sentido.

*Artículo 7.*– Utilidad pública.

La declaración del río Leizaran como espacio natural protegido comporta la calificación de utilidad pública, a efectos expropiatorias de los bienes y derechos afectados.

*Artículo 8.*– Indemnizaciones

La privación singular de la propiedad privada o de los derechos e intereses patrimoniales legítimos, con el fin de poner en vigor las restricciones del presente Decreto serán objeto de indemnización de acuerdo con lo establecido en la legislación vigente.

*Artículo 9.*– Derecho de tanteo y retracto.

Corresponde a la Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del órgano que resulte competente, el ejercicio de los derechos de tanteo y retracto en todas las transmisiones intervivos de terrenos situados en el interior del Biotopo Protegido.

AZKEN XEDAPENA

Honako dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko irailak 19.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de septiembre de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

## ERASKINA / *ANEXO*

### LEITZARAN IBAIKO BIOTOPO BABESTUAREN EREMUA
### *ÁMBITO TERRITORIAL DEL BIOTOPO PROTEGIDO RIO LEIZARAN*

